eitb
euskal irrati telebista

# Txostena
# Balance

2002

Dokumentu honek EiTBk 2002. urtean egindako jarduerak jaso, eta aurkezten ditu Euskal Irrati Telebista Publikoak hurrengo urtean, 2003an, heltzeko dituen egitasmoak.

Hedabideen digitalizazioari ekiteko erronkak.

Este documento recoge el resumen de las actividades de EiTB durante el año 2002 y presenta lo que serán los próximos proyectos de futuro que afrontará la Radio Televisión Pública Vasca, Euskal Irrati Telebista, en el año 2003.

Retos en el umbral de la digitalización en los medios de comunicación.

AENOR
ER
Empresa Registrada
ER-0589/2002

CERTIFIED IQNet QUALITY SYSTEM

eitb
euskal irrati telebista

Txostena
Balance

2002

EiTB Gasteizen egoitza berria 3 Nueva sede EiTB Gazteiz
ISO Kalitate Agiria 5 Certificado de Calidad ISO
Programazio berria 7 Nueva programación
EiTB Irratia 9 EiTB Irratia
Programa Kontratua 11 Contrato Programa
EiTB Produktoak 12 Produktos EiTB
El año en imágenes 13 Aurtengo urtea irudietan
Urtea zenbaki bidez 15 El año en cifras
Elkarlaneko bazkideak 17 Socios colaboradores



# BALANCE 2002 TXOSTENA

*2002. urteak ekimen garrantzitsu ugari ekarri ditu EiTBren etorkizunari dagokionez. Ekimen guztien oinarria EiTBk Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu duen lehenengo Programa Kontratua da. 2002-2005 epealdirako akordio horrek EiTBk euskal gizartearekin dituen konpromisoak zehazten ditu, eta, aldi berean, eskaintzen duen zerbitzuaren finantzazio publikoa finkatzen du. Akordioak Taldearen egoera sendotuko du, eta aukera emango digu digitalizazioak dakartzan erronka berriei luzera begira ekiteko.*

*Ildo horretan, aurten EiTBren Gasteizko egoitza digitala inauguratu da. Radio Vitoriaren eta EiTBko gainerako hedabideen instalazioak bildu dira egoitza berrian, besteak beste, telebista estudio bat, irratirako ere erabil daitekeena, eta irrati estudio bat, telebistarako ere erabil daitekeena.*

*Egoitza berria erreferentziazko eredua izango da DIGIBatentzat, hau da, EiTBk euskal hiriburuetan dituen egoitzak digitalizatzeko proiektuarentzat.*

*Beste alde batetik, 2002. urtean beste lorpen bat ere nabarmendu beharra dago. Izan ere, EiTBk ISO 9001:2000 kalitate agiria lortu du, eta agiri hori lortzen lehen komunikabide taldea da, gainera. Agiria, EiTBk etengabeko hobekuntzaren eta kalitatezko zerbitzuaren alde egindako apustuaren erakusgarri da.*

*Ekimenok EiTBren eguneroko eskaintzaren oinarriak eta funtsak dira, eta hala lortu du EiTBk hobetzen eta hazten segitzea. Horrek, EGMren arabera, azken hogei urteetako emaitzarik onenak ekarri ditu gure emisioetan, irrati eta telebistakoak batera hartuta.*



***Andoni Ortuzar***
***EiTBko zuzendari nagusia***
Director General de EiTB

El año 2002 ha sido pródigo en iniciativas de gran trascendencia para el futuro de EiTB. La base principal de todas ellas ha sido la firma del primer Contrato Programa de EiTB con el Gobierno Vasco. Un acuerdo para el periodo 2002-2005, que establece la carta de compromisos de EiTB con la sociedad vasca y define la financiación pública del servicio que ofrece. Un acuerdo que consolida al Grupo y que nos va a permitir afrontar los nuevos retos de la digitalización con un horizonte más amplio.

En esta línea, este mismo año se ha inaugurado la nueva sede digital de EiTB en Vitoria-Gasteiz. Acoge las nuevas instalaciones de Radio Vitoria y del resto de los medios de EiTB, incluyendo un estudio de televisión que permite su uso para la radio, y un estudio de radio que sirve para hacer televisión.

Se constituye en el modelo de referencia de DIGIBat, el proyecto de digitalización de las sedes de EiTB en todas las capitales vascas.

Por otro lado, el año 2002 destaca también por el logro de la certificación de calidad ISO 9001:2000 por parte de EiTB, el primer Grupo de Comunicación en conseguirla. Un hito, que pone de manifiesto la apuesta decidida de EiTB por la mejora continua y la calidad de su servicio.

Todas estas iniciativas son las infraestructuras, los cimientos de la oferta diaria de EiTB, que ha continuado su línea de mejora y crecimiento, logrando para el conjunto de sus emisiones de radio y televisión los mejores resultados de sus veinte años, según el EGM.

# Nueva Sede EiTB Gasteiz





La nueva sede de EiTB en Vitoria-Gasteiz acoge a la emisora Radio Vitoria , ETB y el resto de los medios del Grupo, en un entorno digital.

El mes de junio EiTB inaugura su nueva sede digital en Vitoria-Gasteiz. Esta sede dobla el espacio disponible por EiTB en la capital alavesa, además unifica los servicios de producción y difusión de radio y televisión, haciendo realidad la convergencia de los medios y, por otra parte, dentro del proyecto "DIGIBat" de EiTB, cuenta con una conectividad directa con el resto de sedes del Grupo.

El acto de inauguración, emitido en directo por radio, televisión e Internet fue presidido por el Lehendakari del Gobierno Vasco, D. Juan José Ibarretxe.



***EiTBk Gasteizen duen egoitza berrian Radio Vitoria, ETB eta taldeko gainerako komunikabideak daude, guztiak ere ingurune digitalean.***

*Ekainean inauguratu zuen EiTBk Gasteizeko egoitza berria. EiTBk Arabako hiriburuan ordura arte zeukan espazioa bikoiztu egin du egoitza berriak, eta, gainera, bateratu egin ditu irrati eta telebistarako produkzio eta emisio zerbitzuak. Horiek horrela, errealitate bihurtu du komunikabideen bat-egitea eta, bestalde, EiTBren DIGIBat proiektuaren barruan, konexio zuzena dauka Taldeko gainerako egoitzekin.*

*Inaugurazio-ekitaldia zuzenean eman zen irrati, telebista eta Interneten, Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakaria buru zela.*

# EiTB Gasteizen egoitza berria





**Inicio de emisiones de la TDT**

El mes de marzo se inician las emisiones en pruebas de la Televisión Digital Terrestre (TDT) desde la "cabecera", o centro de generación y monitorización de señales digitales, instalado en el Centro Emisor de EiTB en Iurreta.

La cobertura total a la que puede acceder esta primera emisión en pruebas alcanza el 80 % de la población de la Comunidad Autónoma Vasca, incluidas al completo las capitales de Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz.




**LTDren emisioen hasiera**

*Martxoan eman zitzaien hasiera Lur Telebista Digitalaren (LTD) probako emisioei EiTBren Iurretako Emisio Zentroan instalatutako gune-buru digitaletik, alegia, seinale digitalak sortzeko eta monitorizatzeko zentrotik.*

*Probetako lehenengo emisio hori Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %80ra heltzen da, Bilbo, Donostia eta Gasteiz oso-osorik barne.*

# Certificado de Calidad ISO





## EiTB es el Primer Grupo de Comunicación en obtener el certificado de calidad ISO.

## *EiTB da ISO kalitate agiria jaso duen lehenengo komunikabide taldea.*

El mes de mayo el Grupo EiTB obtiene la certificación de AENOR para un total de 50 procesos de gestión con la ISO 9001:2000, asumiendo con ello un papel pionero en la incorporación de esta certificación de calidad al sector de los medios de comunicación.

La obtención de esta certificación consolida la apuesta de EiTB por ofrecer a la sociedad vasca un servicio de calidad a través de todos sus medios.



*EiTB Taldeak maiatzean lortu zuen AENOR-ek ematen duen agiria, ISO 9001:2000 arauaren bidez ebaluatutako 50 kudeaketa prozesutarako. Horrenbestez, aitzindaria izan da komunikabideen sektoreari kalitate agiria eransten.*

*Agiria lortuta, sendotu egin da EiTBk euskal gizarteari komunikabide guztien bitartez kalitateko zerbitzua eskaintzeko egin duen apustua.*

# ISO Kalitate Agiria





La Directora de Aenor Zona Norte, Luz Emparanza, entregó el diploma que certifica la calidad de los procesos de Gestión Comercial de radio y televisión; la Elaboración del Presupuesto del Grupo; el Sistema de seguimiento de costes y rentabilidad; el Proceso de selección de personal, así como la Gestión de personal; los Procedimientos de contratación mercantil; la Gestión de compras; el Plan anual de Sistemas y el Centro de atención a usuarios, entre otros.




*Aenor Zona Norte-ko zuzendariak, Luz Emparanzak, eman zuen agira, ondoko prozesuen kalitatea egiaztatzeko: irrati eta telebistako kudeaketa komertziala, taldearen aurrekontua egitea, kostuak eta errentagarritasuna jarraitzeko sistema, langileak hautatzeko prozesua eta langileen kudeaketa, kontratazio komertzialerako prozedurak, erosketen kudeaketa, sistemen urteko plana eta erabiltzaileei laguntzeko zentroa, beste batzuen artean.*

# Nueva programación





## ETB incorpora nuevos espacios en su prime time.

La cadena en euskera ETB-1 ha renovado de forma completa su programación de prime time, incorporando nuevos espacios y realizando una oferta más variada.

Entre los mismos cabe destacar el programa **Bexamela**, con los jóvenes como protagonistas, presentado por Estitxu Fernández; el concurso **Basetxea,** conducido por Julian Iantzi, el espacio **Baietz Gogoratu,** que rememora los años 60, 70 y 80 en Euskadi o el remozado **"Sorginen Laratza"**, ahora en formato semanal. Junto a ello, la nueva apuesta por el cine en euskera, con la emisión de una película semanal sin cortes publicitarios.





## *ETBk saio berriak ditu ordutegi nagusian.*

*Euskarazko kateak, ETB-1ek, erabat berritu du bere ordutegi nagusiko programazioa; izan ere, saio berriak sartu ditu eta eskaintza zabalagoa egin du.*

*Besteak beste, ondokoak nabarmen ditzakegu: **Bexamela** programa, gazteak direla protagonista eta Estitxu Fernándezek aurkeztuta; **Basetxea** lehiaketa, Julian Iantzik gidatuta; **Baietz Gogoratu** saioa, 60, 70 eta 80ko hamarkadetan Euskadin bizi izandako kontuak gogora ekartzen dituena; eta **Sorginen Laratza** berria, astean behingoa orain. Horrekin guztiarekin batera, euskarazko zinemaren aldeko apustua egin da, astean film bat ematen baita publizitate etenik gabe.*

# Programazio berria

En ETB-1 ha destacado también la programación deportiva, con las retransmisiones de primer nivel de fútbol, pelota, basket y regatas; y el especial seguimiento de las competiciones europeas del Alavés y del TAU Baskonia de Vitoria-Gasteiz.

Por lo que respecta a ETB-2, ha consolidado sus programas, como La noche de... presentado por Félix Linares, Lo Que Faltaba o Esta Es Mi Gente y ha incorporado a Carlos Sobera en Date el Bote.

Mientras, Teleberri es el informativo más visto en Euskadi todos los días de la semana y en sus ediciones de mediodía y noche. Por primera vez el Teleberri I de las 15:00 horas, presentado por Estíbaliz Ruiz de Azúa y Juan Carlos Etxeberria, ha superado al resto de informativos.

## ETB-2: Primera cadena en Euskadi

Todo ello ha propiciado que la cadena ETB-2 haya obtenido un hito histórico durante el mes de Agosto, situándose por primera vez en su historia como la cadena más vista en Euskadi.







Ranking tv Euskadi




**Agosto 2002 (Share)** ***Abuztua***

Iturria/Fuente: Sofres A.M. Share 24 ordu/horas

*ETB-1en, halaber, kirol programazioa ere nabarmendu da. Futbola, pilota, saskibaloia eta arrauneko punta-puntako emanaldiak izan dira eta, gainera, Gasteizeko Alavés eta TAU Baskonia taldeek Europako txapelketetan egin duten lanaren jarraipen berezia ere izan da.*

*ETB-2ri dagokionez, finkatu egin dira zenbait programa, hala nola, La noche de... Félix Linaresek aurkeztua, Lo Que Faltaba edo Esta Es Mi Gente, eta Carlos Sobera hasi da Date el Bote programan.*

*Era berean, Teleberri da asteko egun guztietan Euskadin gehien ikusten den albistegia, hala eguerdikoa nola gauekoa. Estíbaliz Ruiz de Azúa eta Juan Carlos Etxeberriak aurkeztuta, 15:00etako Teleberri I-ek gainerako albistegiak gainditu ditu lehengo aldiz.*

## *ETB-2: Lehenengo katea Euskadin*

*Hori guztia dela eta, ETB-2k marka historikoa lortu zuen abuztuan, Euskadin gehien ikusi zen katea izan baitzen estreinakoz abian jarri zenetik.*

**Euskadi Irratia celebra su 20 Aniversario el día 23 de Noviembre.**

*Euskadi Irratiak 20. urteurrena ospatu zuen azaroaren 23an.*

Con motivo de este Aniversario la emisora ha reunido a 20 personajes relevantes de la vida social, política, deportiva y cultural de Euskadi. Entrevistas “por parejas” realizadas por Susana Mujika, en las que participaron:

*Urteurrena zela eta, irratiak Euskadiko gizarte, politika, kirol eta kultura alorretako 20 pertsona ospetsu bildu zituen. Susana Mujikak zuzenduta. "binakako" elkarrizketak egin ziren. Ondokoek hartu zuten parte:*

- Julian Retegi / Andoni Zubizarreta 1
- Benito Lertxundi / Juan Carlos Perez 2
- Ramón Labayen / Xabier Amuriza 3
- Jon Sarasua / Paul Nicholson 4
- Bernardo Atxaga / Fermin Muguruza 5
- 6 Alberto Iñurrategi / Pako Iriondo
- 7 Estitxu Fernandez / Iñaki Perurena
- 8 Iban Garate / Sustrai Colina
- 9 Anjel Lertxundi / Pedro Miguel Etxenike
- 10 Mari Karmen Garmendia / Iñigo Lamarka.

















**Chillida Leku**

Con motivo de su **20 Aniversario, Euskadi Irratia** reunió en Chillida Leku a sus principales colaboradores. El Acto se convirtió, además, en un homenaje al escultor Eduardo Chillida.

**Radio Vitoria**

El año 2002 la emisora Radio Vitoria estrena su nueva sede digital en la calle Martínez de Aragón de la capital alavesa, a la que se ha trasladado todo su equipo profesional.

**Radio Euskadi**

La emisora Radio Euskadi ha superado por primera vez en su historia la cota de los 250.000 oyentes diarios, logrando con ello el liderazgo absoluto de la radiodifusión en Euskadi.

**Euskadi Gaztea**

El año 2002 la emisora Euskadi Gaztea ha puesto de moda la **“Disko Festa”**, una fiesta musical conducida por Joseina Etxebarria, que ha recorrido con gran éxito gran número de localidades vascas.






***Chillida Leku***

***20. urteurrena zela eta, Euskadi Irratiak*** *bere kolaboratzaile nagusiak bildu zituen Chillida Lekun. Horretaz gain, ekitaldia Eduardo Chillida eskultoreari egindako omenaldi ere bihurtu zen.*

***Radio Vitoria***

*2002. urtean, Radio Vitoria irratiak egoitza digital berria estreinatu du Arabako hiriburuko Martínez de Aragón kalean, eta talde profesional osoa bertara joan da.*

***Radio Euskadi***

*Radio Euskadik egunean 250.000 entzuletik gorako kuota gainditu du estreinakoz abian jarri zenetik. Horrela, bada, buru-buruan dago Euskadiko irratien artean.*

***Euzkadi Gaztea***

*2002. urtean Euskadi Gaztea irratiak modan jarri du* ***“Disko Festa”****, Joseina Etxebarriak zuzendutako musika-festa. Euskadiko hainbat eta hainbat herritan izan da eta arrakasta handia lortu du.*






## El Gobierno Vasco y EiTB firman el Contrato Programa de EiTB para el periodo 2002-2005.

## *Eusko Jaurlaritzak eta EiTBk EiTBren Programa Kontratua sinatu dute 2002-2005 epealdirako.*

El Contrato Programa es un **acuerdo plurianual entre la Administración Pública Vasca y EiTB**, en el que se define el servicio público de radio y televisión, así como la carta de compromisos de EiTB con la sociedad vasca. Por su parte, el Gobierno Vasco establece un sistema de financiación plurianual, que dota a EiTB de estabilidad presupuestaria para el periodo 2002-2005.

*Programa Kontratua Euskadiko Herri Administrazioaren eta EiTBren arteko hainbat urtetarako akordioa da. Bertan, irrati eta telebistako zerbitzu publikoa zehazten da, bai eta EiTBk euskal gizartearekin hartutako konpromisoak ere. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak hainbat urtetarako finantzazio sistema ezarri du, eta sistema horrek aurrekontu-egonkortasuna emango dio EiTBri 2002-2005 epealdirako.*

*Contrato Programa Kontratua*

| | |
|---|---|
| 2002 | 88.500.000 € |
| 2003 | 93.000.000 € |
| 2004 | 96.000.000 € |
| 2005 | 99.000.000 € |

El Contrato Programa recibió informe positivo del Consejo de Administración de EiTB sin ningún voto en contra, y fue firmado por la Vicelehendakari Idoia Zenarruzabeitia, la Consejera de Cultura Miren Azkarate y el Director General de EiTB Andoni Ortuzar.

*Programa Kontratuak EiTBren Administrazio Kontseiluaren aldeko txostena izan zuen, kontrako botorik gabe, eta Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak, Miren Azkarate Kultura sailburuak eta Andoni Ortuzar EiTBko zuzendari nagusiak sinatu zuten.*



## EiTB presenta su Catálogo de Ventas en el MIPCOM

## *EiTBk bere Salmenta Katalogoa aurkeztu du MIPCOMen*

EiTB ha presentado su Catálogo de Ventas en la Feria MIPCOM de Cannes, la más importante del sector audiovisual en Europa.



Este Catálogo recoge más de 1.000 horas de producciones audiovisuales vascas, ordenadas en cuatro apartados: Animación, Documentales, Entretenimiento y Ficción. Además, el Catálogo tiene también su propio espacio en la web de “eitb.com”, que permite el acceso directo a la información más completa de todos los programas.

*EiTBk bere Salmenten Katalogoa aurkeztu du Canneseko MIPCOM azokan, ikus-entzunezko sektoreari dagokionez Europako azokarik garrantzitsuenean.*

*Katalogoak ikus-entzunezko euskal produkzioen 1.000 ordu baino gehiago jasotzen ditu, lau ataletan sailkatuta: Animazioa, Dokumentalak, Entretenigarriak eta Fikzioa. Halaber, Katalogoa eitb.com web gunean dago, eta horrek bidea ematen du programa guztien informaziorik osoenera zuzenean sartzeko.*



## CD – DVD - VHS

## *CD – DVD - VHS*

EiTB ha editado una serie de vídeos, libros y CDs en euskera, dirigidos principalmente al público infantil. "Shin-Chan", "Altza Porru", “Hirukiak” o "Hartz Txiki" están teniendo una gran acogida entre los más pequeños. También la web “eitb.com” ofrece una información completa sobre todos ellos, así como sobre los lugares en que pueden adquirirse. Un año más EiTB estuvo presente con stand propio en la Feria del Libro y el Disco Vasco de Durango.



*EiTBk euskarazko bideoak, liburuak eta CDak argitaratu ditu haurrentzat. "Shin-Chan", "Altza Porru", “Hirukiak” edo "Hartz Txiki"k oso harrera ona dute gazteenen artean. eitb.com web guneak guztiei buruzko informazio osoa eskaintzen du, eta, era berean, produktuok non eskuratu daitezkeen ere argitzen du. Beste behin, EiTBk bere standa izan zuen Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azokan.*





## EiTB se incorpora al Patronato del Museo Guggenheim de Bilbao.



**Museo Guggenheim**
EiTB se incorpora al Patronato de la Fundación del Museo Guggenheim de Bilbao, y celebra en el Atrio del mismo la presentación de la nueva Programación de Otoño.



**Betizu**
El proyecto Betizu da nuevos pasos adelante, celebrando por primera vez la "Betizuen Jaia", que congrega a más de 30.000 personas.

**Presentación Comercial en Barcelona**
EiTB realiza su primera presentación comercial en Barcelona, apadrinada por José Mari Bakero, Txiki Begiristain, Karlos Arguiñano y Pedro Subijana.



**Artium**
EiTB celebra en el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz la entrega de los Premios Iparragirre a los mejores programas del año.

## *EiTB Bilboko Guggenheim Museoko Babesle egin da.*

***Guggenheim Museoa***
*EiTB Bilboko Guggenheim Museoaren Fundazioaren Patronatuko kide egin da, eta museoaren atarian egin zuen Udazkeneko Programazio berriaren aurkezpena.*

***Betizu***
*Betizu proiektuak urrats gehiago egin ditu aurrerantz eta lehenengo aldiz ospatu du "Betizuen Jaia". 30.000 lagun baino gehiago bildu ziren bertara.*

***Aurkezpen komertziala Bartzelonan***
*EiTBk bere lehenengo aurkezpen komertziala egin zuen Bartzelonan, José Mari Bakero, Txiki Begiristain, Karlos Arguiñano eta Pedro Subijanak babestuta.*

***Artium***
*EiTBk Gasteizko Artium museoan antolatu du urteko programarik onenei Iparragirre sariak banatzeko ekitaldia.*








## Premios



El programa **"El Altavoz"** de Radio Euskadi de Xabier Lapitz recibe el ***Premio Emakunde 2002.***

El programa de artes escénicas **"Hau Komeria / Desde el Gallinero"** recibió el ***Premio Ercilla*** por la difusión de la actividad teatral a través de ETB.



**EiTB** recibe el ***"Premio Kalitatea"*** del Gobierno Vasco por su contribución a la difusión de los productos con eusko label.



El documental **"El sudor de nuestra frente"** de Sirimiri y ETB, recibe un Premio en el I Festival Audiovisual ***INCUNA 2002.***



El documental **"Annapurna: Sueño y Vacío"**, de la serie Oinak Izarretan de Alberto Iñurrategi, recibe el premio del 20º Festival Internacional de Cinema de Muntanya i Aventura de Torelló.



El programa **"La noche de..."** presentado por Felix Linares recibe el premio ***GECA 2002.***

**"eitb.com"** recibe el Premio Buber a la mejor web de Euskadi.

## *Sariak*

*Radio Euskadiko Xabier Lapitzen **"El Altavoz"** programak **Emakunderen 2002ko saria** jaso du.*

***"Hau Komeria / Desde el Gallinero"** arte eszenikoen programak **Ercilla saria** jaso zuen, ETBren bitartez antzerki-jarduera hedatzeagatik.*

***EiTBk** Eusko Jaurlaritzaren **"Kalitatea Saria"** jaso du, eusko labeleko produktuak ezagutzera ematen egindako lanagatik.*

*Sirimiriren eta ETBren **"El sudor de nuestra frente"** dokumentalak saria jaso zuen **INCUNA** ikus-entzunezkoen I. jaialdian.*

*Alberto Iñurrategiren Oinak Izarretan telesaileko **"Annapurna: Sueño y Vacío"** dokumentalak saria lortu du Torelloko Mendiaren eta Abenturaren gaineko Nazioarteko 20. Zinemaldian.*

*Felix Linares-ek aurkezturiko **"La noche de..."** saioak GECA 2002 saria jaso du.*

***"eitb.com"** guneak Euskadiko web onenaren saria jaso du.*

## *ETBren Audientzia*
## Audiencia de ETB

etb 1




etb 2




Iturria/Fuente: Sofres A.M. Share 24 ordu/horas.
(2002ko datuak: Abenduaren 20rarte. Datos 2002: hasta 20 Diciembre).

## *ETB Programa Ranking-a*
## Ranking programas ETB

| etb 1 | Fecha | SHR | SHR EUSK |
|---|---|---|---|
| **Futbola:** Espaniako liga (Ath.Bilbao-R.Sociedad) | 12/1/02 | 46,4 | 56,3 |
| **Estropadak** : Donostiako bandera | 1/9/02 | 41,1 | 61,7 |
| **Pilota:** Beloki-Barriola | 23/6/02 | 39,3 | 58,2 |
| **Gaur egun 2** | 5/5/02 | 15,8 | 31,2 |
| **Goenkale:** "Ezkututik begira...",1609 atala | 4/10/02 | 13,2 | 34,2 |
| **etb 2** | | | |
| **"La noche de...":** Godzilla | 1/1/02 | 44,4 | 40,0 |
| **Teleberri 2** | 26/8/02 | 36,4 | 44,2 |
| **Date el bote** | 18/10/02 | 33,7 | 28,7 |
| **Mas humor** | 1/8/02 | 32,4 | 33,6 |
| **Esta es mi gente** | 24/1/02 | 31,8 | 35,3 |

Iturria/Fuente: Sofres A.M. Share 24 ordu/horas





## *20 urteko garapena EiTB taldea*
## Evolución 20 años Grupo EiTB

eitb




Iturria/Fuente: EGM/CIES (Entzuleak eguneko zenbat mila/Total oyentes en miles).

*Audientzia ikerketa guztiek egiaztatzen dute gero eta pertsona gehiagok konektatzen dutela egunero EiTB taldeko hedabideren batekin. Bai Sofresek, bai CIESek, bai EGMk erakusten dute euren datuetan gure taldea gorantz doala.*

Todos los estudios de audiencia confirman el aumento del número de personas que cada día conectan con alguno de los medios del grupo EiTB. Así, tanto Sofres, como CIES y EGM corroboran esta tendencia ascendente del grupo.

## *EiTBren audientzia*
## Audiencia EiTB

eitb

| | EGM | | | CIES | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2000 | 2001 | 2002 | 2000 | 2001 | 2002 |
| Euskadi Irratia | 43 | 40 | 59 | 71 | 70 | 71 |
| Radio Euskadi | 150 | 187 | 230 | 175 | 180 | 190 |
| Radio Vitoria | 28 | 26 | 26 | 28 | 25 | 25 |
| Euskadi Gaztea | 70 | 53 | 64 | 55 | 63 | 56 |
| EiTB Irratia | -- | 6 | 5 | -- | 5 | 5 |
| **GUZTIRA/TOTAL** | **291** | **312** | **384** | **329** | **343** | **347** |

Iturria/Fuente: CIES/EGM (Entzuleak eguneko zenbat mila/Total oyentes en miles)

# Socios colaboradores *Elkarlaneko bazkideak*

EiTB cuenta con una participación del 5% en Euskaltel, el operador global de telecomunicaciones del País Vasco.

EiTBk %5eko partaidetza du Euskaltelen, Euskadiko telekomunikazio operadore globalean.

El instituto alemán Fraunhofer, la red de investigación tecnológica más prestigiosa del mundo, y EiTB, hemos creado el Centro de tecnología audiovisual VICOMTech. Un nuevo Centro de I+D en tecnologías de animación gráfica y visual

Alemaniako Fraunhofer institutuak - munduan ikerketa teknologikoen arloan dagoen sarerik ospetsuenak- eta EiTBk elkarlanean, VICOMtech ikus-entzunezko teknologien Zentroa sortu dugu. Animazio grafiko eta bisualaren teknologiak lantzen

EiTB cuenta con la colaboración de Bertelsmann, una multinacional de los medios de comunicación, que se encarga de la CRM (Customer Relationship Management).

Egínkizun hori aurrera eramateko, hedabideen arloan diharduen Bertelsmann multinazionalaren laguntza du EiTBk, enpresa hori arduratzen baita bezeroekiko harremanez.

Internet es el futuro motor de la humanidad. Y en EiTB, explotamos las posibilidades que ofrece gracias al acuerdo alcanzado con Yahoo! Porque ahora, en www.eitb.com, todo el que quiera puede disfrutar del streaming o difusión on line de ETB y de las emisoras de radio del Grupo.

Gizadiak etorkizunean izango duen tresna nagusietako bat da Internet. EiTBk Yahoo!rekin egindako hitzarmenari esker, Interneten aukera guztiak gure eskuan jarri dira. Orain, www.eitb.com helbidera joz, nahi duenak ETB eta Taldeko irratien streaming edo lineako zabalkundea jaso dezake.

A finales de esta década todas las televisiones serán digitales. Por eso, las cadenas más importantes se están preparando para este cambio, emitiendo la Televisión Digital Terrenal (TDT).

Hamarkada honen amaieran telebista guztiak digitalak izango dira. Horregatik, katerik garrantzitsuenak aldaketa horretarako prestatzen hasi dira, Lurreko Telebista Digitala eskainiz (TDT).

Dos de cada tres programas que se emiten en ETB son de producción propia. Por eso, EiTB cuenta con un acuerdo para la producción de contenidos con IBAIA, la asociación de productoras del sector audiovisual vasco.

ETBk emititzen dituen hiru programetatik bi bertan sortuak dira. Horregatik, EiTBk edukiak ekoizteko hitzarmen bat egin du IBAIArekin, euskal ikus-entzunezkoen ekoizleen elkartearekin.

EiTB es socio de la Federación de Radio-Televisiones Autonómicas que nació hace 12 años. Pudiendo así compartir la adquisición de derechos audiovisuales y hacerse un hueco en el mercado internacional.

EiTB, duela 12 urte sortu zen Irrati-Telebista Autonomikoen Federazioko bazkide da. Era horretan, ikus-entzunezko eskubideak erostean kostua banatzen da, eta nazioarteko merkatuan parte hartzeko aukera zabaldu.

El Centro de Producción de Programas de Miramón de EiTB se ubica junto al Parque Tecnológico. Permitiendo esta cercanía la posibilidad de desarrollar nuevos proyectos en producción, realización y difusión de contenidos digitales.

EiTBren Miramongo Programak Egiteko Zentroa Teknologi Elkartegiaren ondoan dago. Elkartegi horretatik hain hurbil egonik, eduki digitalak ekoitzi, egin eta zabaltzeko proiektu berriak antolatzeko aukera dago.

---

euskal irrati telebista

*Zuzendaritza eta emisio zentrua.*
Dirección y centro de emisión.

48.215 IURRETA (BIZKAIA)
Tel.: 94 603 10 00
Fax: 94 603 10 95

*Merkatal Bulegoa*
Oficina comercial

Ibañez de Bilbao, 28-4º Dpto.C
48.009 BILBAO
Tel: 94 423 50 00
Fax: 94 424 77 15

euskaltelebista
48.215 IURRETA
(BIZKAIA)
Tel.: 94 603 10 00
Fax: 94 603 10 95

Produkzio zentrua.
Centro de producción.

MIRAMON
20.014 DONOSTIA
Tel: 943 01 16 00
Fax: 943 01 19 95

EUSKADI IRRATIA

Miramon Pasalekua, 172 - 20014 Donostia, San Sebastian
Tel: 943 01 23 00
Telefax: 943 01 22 90

RADIO EUSKADI

Gran Via 85, 1º 48011 Bilbao
Tel: 94 401 24 00
Telefax: 94 401 21 95 - 94 401 21 90

RADIO VITORIA

Domingo Martinez Aragón 5-7 Bajo
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel-945 012500. Telefax: 945 012695

EUSKADI GAZTEA

Miramon Pasalekua 172 - 20014 Donostia, San Sebastian.
Tel: 943 01 23 00
Telefax: 943 01 22 90

*Zuzendaritza eta emisio zentrua.*
Dirección y centro de emisión.

48.215 IURRETA (BIZKAIA)
Tel.: (34) 94 603 10 00
Fax: (34) 94 603 10 95

eitb.com